2015 URTEA

2016ko aurrekontuak

**BILERA MOTA:** AUZOTAKO BILERA ITURRIOTZ **ZENBATGARREN SAIOA : 1**

| DATA: | HASIERA ORDUA: | BUKAERA ORDUA: |
|---|---|---|
| 2015-11-04 | 19:38 | 21:15 |

**BILDUTAKOAK:**

| |
|---|
| Udal ordezkariak: Jexux Leonet, Agurtzane Lekuona, Ioritz Aizpuru, Eneritz Arbelaitz eta Iñaki Pikabea |

Kopurua: 21

| | | |
|---|---|---|
| 16-30 urte: 2<br>30-50 urte: 12<br>>50 urte: 6 | Emakumeak: 9<br>Gizonezkoak: 12 | Euskaraz |

**AKTALARIA**: Ioritz Aizpuru

| | GAIA | ERABAKIA |
|---|---|---|
| 1 | Aurkezpena 19.40 | Taldekideak aurkeztu dira eta bilera nola antolatu dugun ere bai. |
| 2 | Aurrekontuak 2016 19.50 | 2016ko diru-sarreren aurreikuspena azaldu da eta horren araberako gastuak zeintzuk izango diren. Atal honetan inbertsioek garrantzia berezia dute: herri-mantenua, udal-eraikinen mantenua, bidegorria... eta horien artean auzoak. Zor biziaren jaitsiera ere nabarmendu da. |
| 3 | 2015eko lanak | **Tronpeoko malda.** Zuloz betea zegoen eta dagoeneko berritu da. Hala ere, orain moldatu egin behar da. Oinezkoen segurtasuna bermatu behar da. Horretarako Udalaren proposamena lurrean markak egitea da.<br>Auzotarren proposamenak:<br>-Semaforoak Pasaian bezala?<br>-Oinezkoen lurrean pintura berezia, ez irristatzeko, malda baita. Marra baten bitartez bestela, bereizteko. Oinezkoen irudia argi eta garbi irudikatu.<br>-Autobusak arazoak ekartzen dituzte. Orain, hala ere, ez omen da hortik ibiltzen. |

| | | |
|---|---|---|
| | | -Palazioaren bazterreko arbolak kimatu eta aprobetxatu, oinekoentzako. Partikularra al da? Iturrioztik bidegorri bitarte bidea zabaldu daiteke? Zubian ere marra marraztu. Argitasun falta puntu batzutan, adibidez bidegorriko kruzean argia ez dago batere ongi.<br><br>**Horma etxeko espaloia:** Egingo da. Gure Txokoko garajearen aurrean rebajea xamurtu.<br><br>**Markesina.** Kokapena ongi. Altura begiratu, agian ttikiago? Bizilagunekin hitz egin behar dugu. Proposatu dute<br><br>**Beste eskaera batzuk:**<br>Santxotik harategira oinezkoentzako pasabidea. Arriskutsua geratzen da. Erosketak, haurrak... Abiadura handian pasatzen dira kotxeak. Espaloia egin al daiteke terreno pribatu horretan terrenoan? Frontoiaren ondoan zerbait jarri kotxeak ez aparkatzeko, errepidea libre utzi. |
| 4 | 2016ko inbertsioak 20.38 | -Beheko soroa biziberritu: egoki ikusten da. Parkearen kasuan akaso lurra da aldatu beharrekoa. Eskailerak ez daude ongi. Inguru osoak errepasoa behar du: bankuak, iturria... Soroarekin hastea lehenesten da.<br>-Torre etxe ingurua: erabilera ematea ongi ikusten da. Torren harri txintxarrak kendu. Zakurtokia bihurtu da.<br>-Tronpeo egokitu<br><br>Ozentzio 28ko plaza hori hutsik dago. Zertarako erabili? Mantenua begiratu. Egiteak ondoren gastu handiagoa ekar dezake.<br><br>Frontoiak zirrittua du, lehen kristala zuen. Itoizurak ere baditu. Egurrezkoa da eta hondatu egingo da.<br><br>Kanasta bat jarri al daiteke? Bengoetxea plazan proposatu dute, txakur kakan zakarrontzia aldatu. ERNE, arriskutsua |

| | | |
|---|---|---|
| | | da kanastak bizilagunen inguruan jartzea. |
| 5 | Mantenu lanak 9.00 | Ekarpen guneko txabolak bisibilitatea kentzen du.<br>Zirauki eta ozentzio tartean jendeak geizki uzten ditu remolkeak, kamioiak... inguru horretan.<br>Kotxeak jendeak geizki uzten ditu orokorrean. Gure Ametsa inguruan aparkaleku falta. Eztabaida, batzuk ikusten dute badagoela, bertan utzi beharrean urrutiago utzi daiteke.<br>Torre inguruan harri txintxarrak daude. Pareta kontra belarra bota???<br>Garañotik aurrera (Oiartzabal bidea) herribidea hobetu, zoloak daude.<br>Organikoaren kuboak haizeak ematen ditu. Ongi sartzen al dute biltzaileek?<br>Ekarpen gunean jendea gelditzerakoan non geratu behar dira kotxeak? Antolaketa falta, itxua geratzen da.<br>Txabolaren ondoan uzten duenak komeriak ateratzeko.<br>Kontenedore asko daude, pilatuak daude.<br>Xorrola. Abuztua goizez etorkizunean jarri. |
| 6 | Balorazioa | Ondoko taulan jarri dira datuak. |

| **BALORAZIOA** | **PUNTUAZIOA** |
|---|---:|
| Hilariak: bileran zehar emandako azalpenak | 8,4 |
| Hizlariak: ondo gidatu dute bilera | 8,1 |
| Bileran erabili den metodologia | 8 |
| Herritarren asistentzia | 6,2 |
| Herritarren partehartzea | 7,7 |
| Saioa probetxugarria izan al da? | 8,4 |
| Egunaren egokitasuna | 7,9 |
| Orduaren egokitasuna | 7,9 |
| Lekuaren egokitasuna | 8,6 |
| Denera bataz beste | 7,9 |

# 2015 URTEA
2016ko aurrekontuak

| **Komunikazio bideak** | **Kop** | **%** |
|---|---|---|
| Bandoa/kartelak | 8 | 31 |
| Irratia eta prentsa | 4 | 15 |
| Sare sozialak | 3 | 12 |
| Ahoz-aho | 4 | 15 |
| Udal aldizkaria | 7 | 27 |